

Funtsezko Jarduerak

KTK enpresaren funtsezko jarduerak balorezko proposamena garatzeko, bezeroetara iristeko, bezeroekin harremanetan jartzeko eta diru-sarrerak lortzeko balioko dute. Hiru zatitan banatuta egongo da:

Produkzioa:

Diseinua:

Gure barnetegiaren diseinua enpresako bazkiek sortu dugu, umeen beharizanak ahalik eta hoberen asetzeko. Gune desberdinetan antolatuta egongo da: gelak, jangela, ludoteka, logelak, negutegia, komunak, kanpoko patioa, liburutegia, sukaldeak...

Barnetegiaren ekoizpena: Barnetegiaren ekoizpena lortzeko, enpresa arkitekto baten laguntza beharko dugu, eta baneko egitura osatzeko, enpresa eta elkarte desberdineekin aliantzak egingo ditugu, hala nola; Ikea altzairientzat eta Milan Eskolako Materialarentzat

Banaketa: Garraio baten bidez, haurrak ekarriko ditugu gure barnetegira

Kalitatea: Gure enpresaren kalitatea aztertzeko, ez dugu beste enpresarik kontratatuko, hau da, guk aztertuko dugu gure zerbitzuen kalitatea.

Arazoak konpontzea:

-Bezereen arreta/Kalitatea: Arazoak ekiditzeko, ume bat barnetegian sartu ahal izateko bere gurasoek formulario bat bete beharko dute, formulario honetan umearen alergia eta arazoak adierazi beharko dira. Hontaz aparte, Afrikako herri batzuetan kabina telefoniko batzuk jarriko ditugu dei ordutegi batekin, umeak eta gurasoak kontaktuan egon ahal izateko

Plataforma edo sarrerako jarduerak:

Promozioak: Gure KTK enpresaren promozioak ez dira dirua lortzeko egiten diren promozio arruntak izango, baizik eta haurren ongizatea lortzeko egingo ditugun promozioak izango dira.

Web-orri: Gure enpresak web-orri bat izango du, web-orri honetan pertsona arruntek donazioak egin ahalko dituzte umeak laguntzeko. Hontaz aparte guk egindako produktuak salduko ditugu.

Plataforma Tekonlogikoak: KTK enpresan Instagram eta TikTok erabiliko ditugu mundu osoarekin kontaktuak jartzeko. Hala ere, joku-aplikazioa bat edukiko dugu, honekin pertsonak puntuak lortuko ditzakete, eta puntu hauekin web-orrian deskontuak edukiko dituzte. Aplikazioarekin dirua irabazteko, iragarkiak erabiliko ditugu.

Komunikazioa

Gure KTK enpresak bezeroekin komunikatzeko hainbat iturri erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, Iratian eta telebistan iragarkiak egingo ditugu, bezeroari gure proiektua aurkezteko. Sare sozial kontuak ere irekiko ditugu plataforma desberdinetan, adibidez, Instagram edo X(Twitter).

Eskainiko dugun proiektuaren banaketa zuzena izango da, hau da, zuzenean bezeroarekin jarriko gara kontaktuan, webgune edo telefono zenbakiaren bitartez.

Proiektuko salmenta ondorengo zerbitzua konstantea izango da, hortaz, bezeroei denbora tarte jakin batez eskaniko diegu gure zerbitzua, bezeroaren adinaren arabera aldatuko da denbora tarte hau.